

## **LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO POLITIKA OROKORRA (LAP)**

**ARABAKO TEKNOLOGIA ELKARTEGIA** azpiegitura fisiko bereizi gisa, Euskal Erakunde Publikoek sustatutako sozietate batek kudeatzen du, eta haren helburua teknologia aurreratuko enpresak, balio erantsi handia sortzen dutenak eta kualifikazio oso altuko giza taldeak dituztenak kokatzea da. Horrez gain, ingurunean Hedapen Teknologikorako Fokua da eta zientziaren, teknologiaren eta enpresen arteko loturak sustatzen laguntzen du.

### **ARABAKO TEKNOLOGI ELKARTEGIA:**

- Jada aipatutako helburu estrategiko eta soziala betetzeko dinamikan.
- Kalitate-sistema garatzeko eta ezartzeko prozesuarekin koherentzian.
- Langile guztien gogobetetze maximoa eta defentsa bilatze aldera.
- ERABATEKO KALITATEAREN alde eginez Teknologia Parkeko instalazioak kudeatzeko eta mantentzeko jardueretan.

## **LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIO ARLOKO PRINTZIBIOEN AITORPENA**

**ARABAKO TEKNOLOGI ELKARTEGIA S**aren zuzendariordetzak, langileen segurtasun eta osasunaren kezka naturalaren barruan, laneko arriskuaren prebentzio arloan Legeak ezarritako aginduak betetzeaz gain, betetze hori aprobeztatuta, ahalik eta gehien hobetu nahi ditu langileen laneko bizitzaren baldintzak.

Helburu horiek lortzeko, jardueraren hobekuntzak etengabea izan behar duela ulertuta, **ARABAKO TEKNOLOGI ELKARTEGIA S**aren zuzendariordetzak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- Aplikagarri diren araudi eta legeetan ezarritako agindu guztiak betetzea.
- Erakundea konprometitzea legezko eta prebentziozko eskakizun guztiak bete ditzan, horretarako langileei prestakuntza eta informazioa emanda.
- Erabilitako prozesu, teknika eta lehengaiak aztertzea, langileentzat arrisku gutxiago sortuko dituztenak aukeratuta.



- Prebentzio-ordezkarien bidez, langileei partaidetza ematea langileen osasun eta segurtasunari eragiten dioten alderdi guztietan, legeak eskatutakoak izan edo ez.
- Prebentzio-jardueren garapenerako nahikoa baliabide eskaintzea.
- Laneko arriskuen prebentzio arloan kultura positiboa sortzea.

Helburu horiek lortzeko, Prebentzioaren Kudeaketa Eskuliburua eta dagozkien Prozedurak egin dituzte. Oinarrizko dokumentu horien barruan ezarrita daude laneko arriskuen prebentzio arloan **ARABAKO TEKNOLOGI ELKARTEGIA SAK** egiten dituen politikak, eskakizunak eta jarduerak.

Gasteizen, 2022eko urtarrilan

Gerentea

Miren Bilbao andrea

Prebentzio-koordinatzailea

Juan Ramon García jauna

## **INGURUMEN POLITIKA**

**ARABAKO TEKNOLOGI ELKARTEGIA SA**, azpiegitura fisiko bereizi gisa, Euskal Erakunde Publikoek sustatutako sozietate batek kudeatzen du, eta haren helburua teknologia aurreratuko enpresak, balio erantsi handia sortzen dutenak eta kualifikazio oso altuko giza taldeak dituztenak kokatzea da. Horrez gain, ingurunean Hedapen Teknologikorako Fokua da eta zientziaren, teknologiaren eta enpresen arteko loturak sustatzen laguntzen du.

**ARABAKO TEKNOLOGI ELKARTEGIA SA**ren helburuetako bat ingurumena kudeatzea da. Hala, erakunde hori osatzen dugun pertsona orok konpromisoa hartzen dugu ondoko printzipio orokor hauei jarraitzeko, ingurumena kudeatzeko dugun sistemaren eraginkortasuna etengabe hobetze aldera:

### ***Konpromiso-adierazpena:***

- Ingurumena errespetatzea; erakundearekin loturiko ingurumen-alderdiei dagokienez, etengabeko hobekuntzarekiko eta kutsadura saihestearekiko konpromisoaren bidez.
- Jardueraren ondoriozko ingurumen-eraginak ebaluatzea; horiek saihestu, ezabatu edo kentzeko asmoarekin.
- Baliabide naturalen arazoizko kudeaketa sustatzea etengabe.
- Sozietatearekiko konpromisoa, ondoko hauek betez: batetik, aplikagarri diren lege-baldintzak, eta, bestetik, ingurumen-alderdiekin zerikusia duten eta guk harpidetutako bestelako baldintzak.
- Era berean, adierazpen honetan ezarritako konpromisoak jendaurrean ikusgai egongo dira, interesa duen edozein alderdik hala behar duenean.

**ARABAKO TEKNOLOGI ELKARTEGIA SA**ren zuzendariordetzak bere egin ditu politika honen konpromisoak, eta horien buru da. Horrez gain, politika aldiari behin berrikusteko konpromisoa hartzen du, planifikatutako helburuen lorpena errazteko beharrezko baliabideak emate aldera.

Gasteizen (Araba), 2022eko urtarrilan

  
Miren Bilbao  
Gerentea